

2020rako PRESTAKUNTZA PLANA

ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUA

**Europako
Gizarte
Funtsak zure
etorkizunean
inbertitzen du**



EUROPAR BATASUNA
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA




GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA




EDUKIAK

P2020rako Prestakuntza Plana Itsasoko Gizarte Institutua	6
Prestakuntzaren onuradunak	8
Itsasoko Gizarte Institutuaren prestakuntza-eskaintzan sartzeko betekizunak	8
Eskabideak	8
Ikastaroetara bertaratzeko direnak hautatzeko irizpideak	11
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	12
Ikasleen ez-betetzeak	14
Bizikidetzaren erregimena eta diziplina-neurriak	15
Itzul daitezkeen gastuak eta zorren erreklamazioa	15
Prestakuntza-ekintzen egutegia	16
2020rako prestakuntza planaren aldaketa	16
2020rako prestakuntza planean barnean hartzen diren ikastaroen zerrenda	17
ITSAS SEGURTASUNA ETA KUTSADURAREN AURKAKO BORROKA	18
Bilaketa eta salbamendua – IAMSAR (International Aeronautical and Maritime Search and Rescue Manual)	18
ISM kodea (international safety management)	18
Hidrokarburoen isurketa	18
Itsas babeseko oinarritzko prestakuntza	19
Segurtasuneko oinarritzko prestakuntza	19
MARPOL 73/78 (International Convention for the Prevention of Pollution from the Ships 1973 and Protocol 1978)	19
Itsasontzia babesteko ofiziala	20
Segurtasuneko oinarritzko prestakuntzako ziurtagiria berrestea	20
Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko teknikaria	20
ESPEZIALITATE-ZIURTAGIRIAK	21
Bidaia-ontziak eguneratzea	21
Gas likidotua garraiatzen duten tanga-itsasontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua eguneratzea	21
Petrolio-ontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua eguneratzea	22
Kimika-ontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua eguneratzea	22

Gas likidotua garraiatzen duten tanga-itsasontzietan zama-lanak egiteko oinarritzko prestakuntza eguneratzea	22
Petrolio-ontzietan eta kimika-ontzietan zama-lanak egiteko oinarritzko prestakuntza eguneratzea	23
Itsas Sorospen eta Segurtasuneko Munduko Sistemaren (ISSMS) operadore nagusia eguneratzea	23
Itsas Sorospen eta Segurtasuneko Munduko Sistemaren (ISSMS) operadore mugatua eguneratzea	23
Suteen aurkako borroka aurreratua	23
Erreskate-ontzi azkarrak	24
Bidaiari-ontziak	24
Biziraupen-ontziak eta erreskate-ontziak (azkarrak ez direnak)	24
Gas likidotua garraiatzen duten tanga-itsasontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua	25
Petrolio-ontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua	25
Kimika-ontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua	25
Petrolio-ontzietan eta kimika-ontzietan zama-lanak egiteko oinarritzko prestakuntza	26
Gas likidotua garraiatzen duten tanga-itsasontzietan zama-lanak egiteko prestakuntza aurreratua	26
Arrantza Marina	27
Itsas Sorospen eta Segurtasuneko Munduko Sistemaren (ISSMS) operadore nagusia	28
Itsas Sorospen eta Segurtasuneko Munduko Sistemaren (ISSMS) operadore mugatua	28
Markaketa automatikoko radarra / ARPA	28
Suteen aurkako borroka aurreratuko ziurtagiria berrestea	29
Biziraupen-ontzietako eta erreskate-ontzietako (azkarrak ez direnetako) ziurtagiria berrestea	29
Erreskate-ontzi azkarreko ziurtagiria berrestea	29
Salgai arriskutsuen garraioa bultoetan / IMDG kodea (INTERNATIONAL MARITIME DANGEROUS GOODS)	30
ONTZIKO LANERAKO KUALIFIKAZIOAK	30
Karta Elektronikoen Informazio eta Bisualizazio Sistemak (KEIBS/ECDIS)	30
Zubiko kudeaketa integrala	30
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	31
Itsasorako oinarritzko elektronika	31
Itsasontziko instalazio elektrikoak	31

ITSASONTZIKO JARDUEREN SEGURTASUNA	32
Itsas konpasaren konpentsatzailea	32
HIZKUNTZAK	32
Itsas Ingeles Teknikoa, II. maila	32
INDUSTRIA-MEKANIKA	33
Hotz-instalazioak	33
Metrologia eta tornu paraleloko oinarritzkoa	33
Oinarritzko SMAW soldadura (SHIELDED METAL ARC WELDING – ESKUZKO ARKUKO SOLDADURA-PROZESUA)	33
ITSAS OSASUNA	34
Itsas Osasunaren arloko prestakuntza espezifiko aurreratua eguneratzea	34
Itsas Osasunaren arloko hasierako prestakuntza espezifiko eguneratzea	34
Itsas Osasunaren arloko prestakuntza espezifiko aurreratua	34
Itsas Osasunaren arloko hasierako prestakuntza espezifiko	34
LANBIDE-TITULAZIOAK	35
Itsas frigorista	35
Merkataritza-nabigazioko makinetako marinelen nahikotasun-ziurtagiria	35
Merkataritza-nabigazioko zubiko marinelen nahikotasun-ziurtagiria	36
Portuko patroia	36
IKASTAROK EMATEKO TOKIAK	37
A) Probintzia-zuzendaritzak	37
B) Itsas prestakuntzako zentro nazionalak	38
2020rako prestakuntza plana itsasoko gizarte institutua probintzia-zuzendaritzak	39
2020rako prestakuntza plana itsasoko gizarte institutua itsas prestakuntzako zentro nazionalak	42



P2020rako PRESTAKUNTZA PLANA ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUA

Itsasoko Gizarte Institutuak prestakuntza-garapena sustatzen du, bere prestakuntza-planen barruan —Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatu ahal izango ditu prestakuntza-plan horiek—. Jar-duera hori etengabeko eboluzio- eta egokitzapen-prozesu baten mende dago, sektorearen eskariaren arabera, baita nazioartean gerta daitezkeen etorkizuneko arauen mende edo aurrerapen teknologikoen edo bertan eragina duen beste edozein motatako aurrerapenen mende ere.

Itsasoko eta arrantzako sektoreko profesionalen prestakuntza-beharrei erantzuteko helburuarekin eta itsasoko langileei prestakuntzan eta promozioan laguntzeko eta haien lanbide-kualifikazioa eta -gaitasuna areagotzeko helburuarekin, onartu eta garatu da itsasoko eta arrantzako sektoreak arlo horretan izan ditzakeen premiak aintzat hartuko dituen Prestakuntza Plana, Europako Gizarte Funtzarekin batera finantza daitekeena. Edonola ere, bat etorriko da Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) eta Europar Batasunaren zenbait gomendiotan, hitzarmenetan eta zuzentarautan aurreikusitakoarekin —berezi-ki LANEren 137. gomendioarekin bat etorriko da (itsasoko jendearen lanbide-heziketa arautzen duena)—, baita Garraio, Mugikortasun eta hiri agenda ministerioak eta Arrantza eta Elikadura, Ingurumen Ministerioak ziurtagiri eta titulazio profesionaleri buruz xedatutakoarekin eta aplikatzeko den nazioko edo nazioarteko beste edozein ararekin ere; horrez gain xedapen hauetan ezarritakoa beteko du: *292/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, Itsasoko Gizarte Institutuaren itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketan sartzeko prozedura eta prestazio-araubidea arautzen dituen* (ekainaren 6ko BOE, 137. zk.) eta *TMS/693/2018 Agindua, ekainaren 28koa, maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretua garatzen duena* (ekainaren 30eko BOE, 158. zk.).

Itsasoko Gizarte Institutuaren 2020rako Prestakuntza Plana honako prestakuntza-arlo hauetan zehazten da:

- Itsas segurtasuna eta kutsaduraren aurkako borroka.
- Espezialitate-ziurtagiriak.
- Ontziko lanerako kualifikazioak.
- Elektrizitatea eta elektronika.
- Itsasontziko jardueren segurtasuna.
- Hizkuntzak.

- Industria-mekanika.
- Itsas osasuna.
- Lanbide-titulazioak.

2020rako Prestakuntza Planean barnean hartzen diren ikastaroak zentro hauetan emango dira:

- Bamioko (Vilagarcía de Arousa) eta Isla Cristinako (Huelva) Itsasoko Gizarte Institutuaren Itsas Prestakuntzako Zentro Nazionalak.
- Itsasoko Gizarte Institutuaren probintziako eta tokiko zuzendaritzetan.
- Baliabide propio pertsonalizatuei egindako enkarguetan edo horretarako sinatzen diren kontratuetan zehatz daitezkeen instalazioetan edo prestakuntza-zentroetan, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritako kontratazioaren arloan aplikatzeko den arauzko esparruan —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak (azaroaren 9ko BOE, 272 zk.)—.

Itsasoko Gizarte Institutuaren prestakuntza-ekintzako ikastaro askok espezializazio handia eskatzen dute, eta, horregatik, ikastaro horiek emango dituzten zentroek Itsasoko Gizarte Institutuak bere curriculum-diseinuetan eskatutako parametroak betetzen dituzten instalazioak, ekipamenduak eta azpiegitura teknikoak eduki beharko dituzte. Horrez gain, Itsasoko Gizarte Institutuak eskatzen dituen profilak egiaztatzen dituzten irakasleek eman beharko dituzte ikastaroak, kalitate handiko prestakuntza eskaintzeko. Itsas Prestakuntzako Zentro Nazionalak dira horren guztiaren adibide; izatez, zentro horiek instalazio egokiak eta puntako teknologia dute eta prestakuntza espezializatua garatzen dute, —itsasoko eta arrantzako sektoreak asko eskatzen duena—.

Bestalde, eta kalitate-politika bere funtsezko konpromisoetako bat denez gero, Itsasoko Gizarte Institutuak, itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketan, Kalitatea Kudeatzeko Sistema implementatu du, eta dagokion ziurtagiria lortu du, UNE-EN-ISO 9001:2015 Kalitatea Kontrolatzeko Nazioarteko Araua.

Itsasoko Gizarte Institutuaren 2020rako Prestakuntza Plana EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREKIN batera finantzatuko da, 2014-2020 aldiko "Enplegua, prestakuntza eta heziketa" programa operati-boaren barruan.

EUROPAR BATASUNA EUROPAKO GIZARTE FUNTSA

"EUROPAKO GIZARTE FUNTSAK ZURE ETORKIZUNEAN INBERTITZEN DU"



PRESTAKUNTZAREN ONURADUNAK:

Maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezartzen denez, Itsasoko Gizarte Institutuaren itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketaren onuradun izan daitezke::

- Espainiako nazionalitatea duten langileak edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide bateko nazionalitatea duten eta Espainian bizi diren langileak, baita lan-baimena eta bizileku-baimena indarrean duten atzeritarrak ere, baldin eta eskabidea aurkezten den unean Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian afiliatuta badaude eta altan edo altaren pareko egoeran badaude, aldizkako langile finkoak barne.
- Aurreko atalean sartuta ez egonik ere, Itsasoko Gizarte Institutuaren ikastaro baterako onar ditzaten eskatzen dutenak, baldin eta eskabidea aurkezteko unean itsasoko eta arrantzako sektorearen okupazio baten eskatzaileak badira.

ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUAREN PRESTAKUNTZA- ESKAINTZAN SARTZEKO BETEKIZUNAK:

Eskabidea aurkezten den unean, onuradun izateko baldintzak betetzeaz gain, data horretan Itsasoko Gizarte Institutuak ikastaro mota horietara sartzeko eskatzen dituen betekizunak betetzen direla ere egiaztatu beharko da.

ESKABIDEAK:

Itsasoko Gizarte Institutuaren Urteko Prestakuntza Planean barne hartzen den ikastaro bat egiteko interesa duen pertsona orok ikastaro mota bakoitzerako eskabidea formalizatu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta; horretarako, indarrean dagoen eredu ofiziala erabili beharko du. Eredu hori Itsasoko Gizarte Institutuaren bulegoetan eskuratu ahal izango da edo Gizarte Segurantzaren web-gunetik deskargatu ahal izango da (www.seg-social.es), betiere 292/2018 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan ezarritako baldintzetan —292/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, Itsasoko Gizarte Institutuaren its-

asoko eta osasuneko lanbide-heziketarako sarbidea eta prestazio-erregimena arautzen duena (ekainaren 6ko BOE, 137. zk.)— eta maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretua garatzen duen ekainaren 28ko TMS/693/2018 Aginduan ezarritako baldintzetan (2018ko ekainaren 30eko BOE, 158. zk.).

Aurkeztu ahal izango da:

- a) Ikastaro mota jakin baterako eskabide orokor bat, ikastaroa emango den lekua eta data zehatza adierazi gabe.
- b) Ikastaro jakin baterako eskabide espezifikoak, Itsasoko Gizarte Institutuak ikastaroa emateko aurrez finkatutako datak eta lekua adierazita. Kasu horretan, eta eskabideak aldeko ebazpena izan arren, eskatzaileak ikastaro horretan plazarik izango ez balu, haren eskabidea indarrean izango da egingo diren mota horretako gainerako ikastaroetarako.

Eskabide bakoitza hogeita lau hilabetez izango da baliozkoa lurralde nazional osoan, eskabidearen dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori amaitu, eta onuraduna eskatutako ikastarorako aukeratu ez badute, ulertuko da eskabidea iraungi dela eta beste bat aurkeztu beharko dela.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, eskabideak indarraldia galdu eta hurrengo hilabetearen barruan berritzen bada eskabidea, eta berritze-eskaera horrek aldeko ebazpena jasotzen badu —aurkezten den unean onuradunaren baldintzak zein ikastarorako sarbidearen baldintzak betetzeagatik—, hasierako eskabidearen antzinatasunari eutsiko zaio.

Itsasoko Gizarte Institutuaren itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketako eskatzaile bakoitzak gehienez bost eskabide aurkeztu eta indarrean izan ahal izango ditu.

Itsasoko Gizarte Institutuak prestakuntzaren ondorioetarako ezarritako lurralde-banaketaren arabera, eskabideak zuzenduko zaizkio eskatzailearen bizilekuari dagokion Itsasoko Gizarte Institutuaren probintziako zuzendaritzaren titularrari. Institutu horrek izango du eskabideak ebazteko eskumena, baita ikastaro batera nor joango den hautatzeko eta asistentzia kudeatzeko eskumena ere, behin eskaeraren aldeko ebazpena eman denean.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira:

- a) Itsasoko Gizarte Institutuaren probintziako eta tokiko edozein zuzendaritzatan.

- b) Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoen bidez.
- c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusten diren tokietako edozeinetan.

Maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eskatzailea onuraduna dela eta ikastaro mota bakoitzerako baldintza espezifikoak betetzen dituela egiaztatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, baldin eta dokumentazioa administrazioaren esku ez badago edo administrazioak egin ez badu:

- a) Eskatutako titulua edo ziurtagiria.
- b) Eskatutako titulazio akademikoa edo prestakuntza osagarria.
- c) Hala badagokio, aurretiazko lanbide-esperientziaren egiaztapena, nabigazio-libretaren bidez, enpresa-ziurtagiriaren bidez edo behar bestekotzat jotzen den beste edozein frogabide bidez.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena ez duela inolako aldaketarik bere egoera fisikoan eta psikikoan, eta, hartara, ez duela eragozpenik bere buruarentzat nahiz gainerako ikasleentzat arriskutsuak izan daitezkeen praktikak egin behar diren ikastaro mota jakin batzuk egiteko.

Adierazpen hori ez da eskatuko, baldin eta, eskabidea aurkezteko unean, interesdunak itsasontziratzerako gaitasun-ziurtagiri medikoa indarrean badu, edo gaitasun hori egiaztatzen duen ziurtagiri medikoa badu.

Eskabidea aurkeztean, onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bat baino ez badu aurkeztu eta ikastaroa egiteko plaza bat eskaintzen bazaio, aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiri-tako edozein aurkeztu beharko dio Itsasoko Gizarte Institutuari, eta indarrean egon beharko du prestakuntza-ekintzak irauten duen bitartean eta, beraz, prestakuntza-ekintza amaitu arte.

- e) Hala badagokio, enpresaren ziurtagiria, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Beregian alta ematea eskatzen duen lanpostu bati eusteko edo hura eskuratzeko konpromisoarekin, baldin eta prestakuntza-ekintzak dakarren gaitasuna eskuratu dela egiaztatzen duen diploma edo ziurtagiria aldeztatik lortu behar bada.

Konpromisoa bere gain hartzeko ahalmena duen enpresaren legezko ordezkariak sinatu beharko du ondorio horietarako balio-

zkoa den ziurtagiria. Ziurtagirian islatuko da: konpromiso horrek zenbat iraungo duen; zer lanposturi eutsiko zaion edo zer lanpostu eskuratuko den; ikastaro zehatzaren eskakizuna; eta eskakizun horren arrazoia.

- f) 16 urtetik gorakoei eskain dakizkien ikastaroen kasuetan, eskatzaileak 18 urte baino gutxiago eta 16 urte baino gehiago badu, aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena.
- g) Igeriketan behar besteko gaitasuna duen erantzukizunpeko adierazpena, adierazpen hori beharrezkoa den ikastaroetarako.
- h) Posta elektronikoko helbidea eta/edo beste gailu elektronikoko batzuetako helbidea edo zenbakia, jakinarazpenak bidaltzeko.
- i) Posta elektronikoko helbidea, eskatutako ikastaroa on line egin badaiteke.
- j) Organo kudeatzaileak eskabidean adierazitako nortasun-datuak eta bizileku-datuak egiaztatuko ditu; horretarako, Nortasun Datuak Egiaztatzeko Sistemari eta Bizileku Datuak Egiaztatzeko Sistemari kontsultatuko du, hurrenez hurren. Interesdunak berariaz adierazi ahal izango du kontsulta horien aurka dagoela; kasu horretan, nortasun-agiri nazionala, pasaportearen edo atzerriarra identifikatzeko txartela eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko ditu.

Prestakuntzarako sarrera bideratzeko eta kudeatzeko, Itsasoko Gizarte Institutuak jendeari arreta emateko bulego-sare zabala du tokiko eta probintziako zuzendaritzetan. Bulego horietan, teknikari kualifikatuak beharrezko informazioa eta aholkularitza emango diete itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketako eskatzaileei.

IKASTAROETARA BERTARATZEN DIRENAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK:

Maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako baldintzetan hautatuko dira ikastaroetara bertaratuko diren eskatzaileak, betiere 13. artikuluko prozedurari jarraituz.

Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia-zuzendaritzek hautatuko dituzte ikastaroetara joango direnak, haien lurralde-esparruan eskura dauden plazen arabera eta itsas prestakuntzako zentro nazionaletan dituzten plazen arabera, betiere bere garaian egiten den plaza-esleipena kontuan hartuz.

Hautaketa egiten ari den ikastaro horretarako berariaz aurkeztutako eskabideak lehenetsiko dira, ikastaro generikoen aurretik, bi kasuetan honako lehentasun-ordena honetan:

1. Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian altan dauden edo antzeko egoeran dauden onuradunak.
2. Ikastaro baterako aurkeztu beharreko ziurtagiria iraungi badaiteke, hautaketa egitean lehentasuna izango dute eskabidea ziurtagiriaren iraungitze-eguna baino sei hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztu dutenak.
3. Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian alta ematea eskatuko duen lanpostu bati eusteko konpromisoa edo hura eskuratzeko konpromisoa jasotzen duen enpresa baten ziurtagiria aurkezten duten onuradunak, baldin eta prestakuntza-ekintzak dakarren gaitasuna eskuratu dela egiaztatzen duen diploma edo ziurtagiria aldeztu aurretik lortu behar bada.
4. Aurreko egoeretako batean ere barnean hartzen ez diren onuradunen eskabideak ere tramitatuko dira, eskabideak aurkeztu diren antzinatearen ordena zorrotzean.

Aurreko 1., 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako irizpideen arabera lehenesten diren eskabideak, halaber, aurkeztu diren antzinatearen arabera ordenatuko dira.

Arrazionaltasunaren, funtzionaltasunaren, ekonomiaren eta sinplifikazioaren irizpideak kontuan hartuta, eta probintzia-zuzendaritza baten lurralde-esparruko zenbait udalerritan ikastaro mota bera eman behar bada eta prestakuntza-ekintza horien artean hogeita hamar egun baino gehiagoko tarterik ez badago, probintzia-zuzendaritzek tokiko hautaketarako esparrua ezarri ahal izango dute, eta horietan lehentasuna izango dute ikastaroak ematen diren tokitik gertu bizi diren eskatzaileak.

Aurrez hautatutako onuradunek Itsasoko Gizarte Institutuak plaza eskaini eta hurrengo bi eguneko epean baieztatu beharko dute bertaratuko direla, plaza hori hutsik gera ez dadin edo ikastaroa ikasle-faltagatik egin gabe gera ez dadin.

Dena delako ikastaro motaren ikastaro bakoitzerako, ikasleen lehen aurre-hautaketa egingo da. Aurre-hautaketako ikasleen kopurua bat etorriko da plaza eskuragarrien kopuruarekin. Edonola ere, erreserbak ere finkatuko dira, aurrekoetakoren batek prestakuntza-ekintzara joango dela baieztatzen ez badu, erreserbakoak aurre-hautaketara pasatzeko.

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARAK:

Maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 14. artikuluaaren arabera, Itsasoko Gizarte Institutuak antolatutako ikastaroetako ikasleek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Hautatu diren eta bertaratuko direla baieztatu duten prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko.
- b) Ikastaroaren antolaketari, garapenari eta ebaluazio-sistemari buruzko informazio egokia eta behar bestekoa edukitzeko, baita ikastaroa emango den zentroaren funtzionamendu- eta bizikidetza-arauei buruzko informazioa ere.
- c) Zentroaren baliabideak, teknikak eta instalazioak erabiltzeko, betiere funtzionamendu-arauek ikasleentzat ezartzen dituzten irakaskuntza-jardueraren ezaugarrien eta mugen barruan.
- d) Haien prestakuntza-errendimenduaren ebaluazio objektiboa izateko.
- e) Itsasoko Gizarte Institutuak ikastaro bakoitzerako haien esku jartzen dituen zerbitzuak erabiltzeko.
- f) Joan-etorrietako, ostatuko eta/edo mantenuko gastuak itzultzeko, *maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 27. eta 28. artikuluetan ezarritako baldintzetan.*

Ikasleek betebeharrak izango dituzte:

- a) Bertaratuko direla baieztatu duten ikastaroaren hasieran sartzea eta bertaratzea.
- b) Eskoletara puntualtasunez joatea prestakuntza-ekintza osoan (klase teorikoetara, praktikoetara eta gaitasunaren ebaluaziora), justifikatu gabeko absentiarik gabe eta sartzeko eta irteteko ordutegiak errespetatuz.
- c) Funtzionamendu- eta bizikidetza-arauek betetzea, eta irakasleen jarraibideei jarraitzea, bere eskumenen esparruan, baita irakasle ez diren langileenak ere, bere eginkizunak betetzean.
- d) Bere gaitasunen arabera ahalik eta probetxurik handiena lortzeko ikastea eta ahalegintzea, prestakuntza-ekintzetan jasotako ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko beharrezkoak diren interesa eta lana erakutsiz.
- e) Azterketetan, ariketan eta praktikan zintotasun akademikoaren betebeharra betetzea, soilik bere ahalegina eta irakasleak prestakuntza-egoera bakoitzean baimendutako bitartekoak eta tresnak baliatuta.
- f) Grabaketa-baliabiderik ez erabiltzea, salbu irakasleak programatutako jarduerak horrelako baliabideak erabiltzea eskatzen badu. Kasu horietan, ezin izango da eskola-elkarteko inolako kideren irudirik grabatu haren borondatearen aurka edo haren baimen zehatzik gabe.

- g) Eskoletan, jardueretan eta ebaluazioetan sakeleko telefonoak ez erabiltzea, ezta bestelako komunikazio- edo entretenimendu-baliabiderik ere.
- h) Ekipamendu eta material didaktikoa kontserbatzea eta behar bezala erabiltzea. Instalazioak, altzariak eta, oro har, ekipamendu haien izaeraren arabera eta haien xedeetarako erabiliko dira, eta, hala badagokio, irakasleen eta irakasle ez diren langileen jarraibideei jarraituko zaie.

IKASLEEN EZ-BETETZEAK:

Maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 16. artikuluan jasotzen dira Itsasoko Gizarte Institutuaren ikastaroetara bertaratuko direla baieztatu duten ikasleen balizko ez-betetzeak eta aplikatuko litzaizkiekeen ondorioak; edonola ere, ez-betetze horiek epearen barruan justifikatzen diren edo ez hartuko da kontuan.

Ez-betetze hauek ezarri dira:

- a) Ikastarora hasiera-hasieratik ez sartzea.
- b) Ikastaroan hasi eta bertan behera uztea.
- c) Ordu teorikoen % 10etik gorako asistentzia-faltak metatzea.
- d) Aurreikusitako gaitasunak lortzeko ezinbestekoak diren eskola praktikoetako edozeinetara ez bertaratzea.

Aurreko ez-betetze horiei guztiei honako ondorio hauek aplikatuko zaizkie:

- a) Ikastaroaren eskabideari uko egitea.
- b) Ordaindutako gastuak itzultzeko eskubidea galtzea.
- c) Egindako zerbitzuen zenbatekoa ordaindu beharra Itsasoko Gizarte Institutuari. Ordainketa hori modu formalean eskatu duenean, eta ordainketa egin artean, aurkez ditzakeen eskabide guztiak ukatuko zaizkio.
- d) Ez-betetzearen dataren hurrengo sei hilabeteetan aurkezten dituen eskabide guztiak ukatzea.
- e) Tramitatzen ari diren, edo alde ebatzi diren, haren gainerako eskabideak bertan behera geratzea.
- f) Ez-betetzearen unean ikasleak abian duen ikastaro batera bertaratzeke aukeraketa geldiaraztea.
- g) Ez-betetzearen ebazpena jakinarazten den unean bertaratzen ari den ikastarotik kaleratzea.

Ez-betetzea idatziz justifikatzen eta egiaztatzen bada, eta bertaratuko dela baieztatu ondoren sortutako arrazoi zehatz batean oinarritzen bada, ondorio gisa soilik aplikatuko da ikastaroa galtzea eta ebaluatua izateko eskubidea galtzea. Dagokion eskabideak indarrean jarraituko du. Ez-betetzea justifikatzeko gehienez hamar eguneko epea izango da, ez-betetzea gertatzen den egunetik zenbatzen hasita.

BIZIKIDETZA-ERREGIMENA ETA DIZIPLINA-NEURRIAK:

Maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 26. artikulura bitartean arautzen dira bizikidetza-erregimena, ikasleek izan ditzaketen arau-hausteak, aplikatu daitezkeen diziplina-neurriak eta jarraitu beharreko prozedura.

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, eta horietako bakoitzari aipatutako Errege Dekretuaren 19. artikuluan jasotako diziplina-neurriak aplikatuko zaizkio, behin 292/2018 Errege Dekretuaren 2. atalean finkatutako diziplina-prozedura amaitu ondoren —ikasleari entzuteko tramitea barne—.

ITZUL DAITEZKEEN GASTUAK ETA ZORREN ERREKLAMAZIOA:

Oro har, Itsasoko Gizarte Institutuak ematen dituen prestakuntza-ekintzak onuradunen bizitokia dagoen herritik ahalik eta hurbilen egingo dira.

Itsasoko Gizarte Institutuaren urteko planetan barnean hartzen diren ikastaroetara (irakaskuntza) bertaratzeak ez die inolako gasturik ekarriko onuradunei.

Prestakuntza-ekintza amaitu duen ikasleari, edo, kausa justifikatuak tarteko, prestakuntza-ekintza hasi ezin izan duen edo utzi behar izan duen ikasleari sortu ahal izan zaizkion joan-etorrietako, ostatuko eta mantenuko gastuei dagokienez, Itsasoko Gizarte Institutuak honako gastu hauek hartuko ditu bere gain, *maiatzaren 18ko 292/2018 Errege Dekretuaren* 27., 28. eta 29. artikuluetan eta ekainaren 28ko *TMS/693/2018 Agindua*ren 4. artikuluan araututako baldintzetan:

- a) Joan-etorrietako eta mantenuko gastuak, ikaslea bizi den herriaren eta prestakuntza-zentroa dagoen herriaren artean 30 kilometroko distantzia edo distantzia handiagoa dagoenean.
- b) Joan-etorrietako, mantenuko eta ostatuko gastuak, ikaslea bizi den herriaren eta prestakuntza-zentroa dagoen herriaren artean 50 kilometroko distantzia edo distantzia handiagoa dagoenean.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, Itsasoko Gizarte Institutuak itzul ditzakeen gastuak egin dituzten ikasleek gastu horiei dagokien itzulketa-eskaera aurkeztu beharko dute; horretarako, Itsasoko Gizarte Institutuak ezartzen duen eredu ofiziala erabiliko dute. Hamabost eguneko epea izango dute itzulketa-eskaera aurkezteko, ikastaroa amaitu eta hurrengo egunetik aurrera (ikastaro bakoitzeko eskabide bat).

PRESTAKUNTZA-EKINTZEN EGUTEGIA:

2020rako Prestakuntza Planean barnean hartzen diren ikastaroak emateko datak itsasoko langileen beharretara eta prestasunera egokituko dira.

Ikastaro horietakoren batean parte hartzea eskatu nahi duten pertsonen haien bizilekutik hurbilen dagoen Itsasoko Gizarte Institutuaren probintziako edo tokiko zuzendaritzara jo beharko dute eta bertan jakinaraziko dizkiete ikastaro mota bakoitzaren ikastaroen datak.

2020rako PRESTAKUNTZA PLANAREN ALDAKETA:

Itsasoko Gizarte Institutuak beretzat gordetzen du 2020rako Prestakuntza Planean barnean hartutako ikastaroen kopurua aldatzeko aukera (handitzea edo gutxitzea) edo ikastaro mota aldatzeko aukera, baldin eta hala egitea gomendatzen eta justifikatzen duten eta plana egin eta onartzeko unean kontuan hartu ezin ziren inguruabarrak badaude.

Orientagarriak dira, halaber, 2020rako Prestakuntza Planean barnean hartutako ikastaro bakoitzerako esleitutako irakastorduen kopuruari buruzko datuak eta hutsik dauden plazen kopuruari (ikasle kopuruari) buruzko datuak. Era berean, adierazi behar da Itsasoko Gizarte Institutuak prestakuntza-ekintzetara sartzeko baldintzak alda ditzakeela eta, kasu horretan, baldintza berriak egiaztatzea eskatu ahal izango dela, aurre-hautaketako fasera pasa aurretik.



2020rako PRESTAKUNTZA PLANEAN BARNEAN HARTZEN DIREN IKASTAROEN ZERRENDA



ITSAS SEGURTASUNA ETA KUTSADURAREN AURKAKO BORROKA

Bilaketa eta salbamendua – IAMSAR (INTERNATIONAL AERONAUTICAL AND MARITIME SEARCH AND RESCUE MANUAL)

Irakastorduak: 33
Ikasleen kopuru maximoa: 10 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako gaitasun hauek lortzeko:

- Itsasoan sorospen-seinaleei erantzutea.
- Bilaketako eta salbamenduko eragiketak koordinatzea.
- Nazioarteko Itsas Erakundearen itsas komunikazioetarako esaldi normalizatuak erabiltzea bilaketa- eta erreskate-egoeretan.

ISM kodea (INTERNATIONAL SAFETY MANAGEMENT)

Irakastorduak: 20
Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako gaitasun hauek lortzeko:

- Itsas segurtasuna bermatzea eta lesio pertsonalak edo gizakien heriotzak saihesten direla eta ondasunen eta ingurumenaren gaineko eta, batik bat, itsas ingurunearen gaineko kalteak saihesten direla bermatzea.
- Itsasontziaren eragiketetan eta lan-ingurunean segurtasun-jardunbideak ezartzea.
- Adierazitako arriskuen aurkako neurriak hartzea.
- Segurtasunaren eta ingurumenaren gainean eragina duten larrialdi-egoerei aurre egiteko behar besteko ezagutza eguneratuak edukitzea.

Hidrokarburoen isurketa

Irakastorduak: 38
Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako helburu hauek lortzeko:

- Itsasoan hidrokarburoak deskargatzearen ondorioak ulertzea.
- Hidrokarburoen ondoriozko kutsadura ebaluatzea eta kutsadura horri erantzuteko balizko estrategiak aztertzea.
- Hidrokarburoak ezabatzeko metodoak ezagutzea.
- Itsasontzien kutsaduraren ondoriozko kalteen gaineko erantzukizunaren arloan jarduteko sekuentzia ezagutzea.
- Itsasontzien kutsaduraren ondoriozko kalteen gaineko erantzukizunaren arloan aplikatzeko den legeria ezagutzea.
- Itsas kutsaduraren aurrean jarduteko organigrama eta hedabideekiko harremana ulertzea. Agertoki zehatzen simulazioetatik hartutako ekintzak aztertzea.

Itsas babeseko oinarrizko prestakuntza

Irakastorduak: 12
Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako gaitasun hauek lortzeko:

Xedea:

- Itsas babesa gehitu beharraz kontzientziaztea.
- Itsas babesean eragina duten arriskuak eta mehatxuak ezagutzea.
- Babesaren eta babesa lortzeko metodoen alorreko zaintzaren gaineko kontzientziazioari eutsi beharra ulertzea.
- Itsasontziaren babes-planean ezarritako baldintzak mantentzea.
- Aldian behin ikuskatzea itsasontziaren babesak.
- Babes-tresneria eta -sistemak behar bezala erabiltzea.

Segurtasuneko oinarrizko prestakuntza

Irakastorduak: 84
Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako gaitasun hauek lortzeko:

Xedea:

- Itsasontzia utzi behar izanez gero, itsasoan bizirik irautea.
- Sute-arriskuak minimora murriztea eta behar bezala prestatuta egotea, suteak sortzen diren larrialdi-egoerei une oro erantzun ahal izateko.
- Suteen aurka borrokatzea eta sua itzaltzea.
- Istripu bat edo edonolako larrialdi medikoa gertatzen denean, berehala hartzea neurriak.
- Larrialdi-prozedurak betetzea.
- Itsas ingurunearen kutsadura aurreikusteko neurriak hartzea.
- Lanean segurtasun-jarduerak aintzat hartzea.
- Itsasontziaren barruan komunikazioak eraginkorrak izan daitezen laguntzea.
- Itsasontziaren barruan giza harremanak onak izan daitezen laguntzea.
- Nekea kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak ulertzea eta hartzea.

MARPOL 73/78 (INTERNATIONAL CONVENTION FOR THE PREVENTION OF POLLUTION FROM THE SHIPS 1973 AND PROTOCOL 1978)

Irakastorduak: 25
Ikasleen kopuru maximoa: 15 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea gaitasun hau lortzeko:

- MARPOL hitzarmenaren aginduak eta kutsaduraren prebentzioaren arloko Espainiako araudiaren aginduak aplikatzea, giza ingurunea eta, zehazki, itsas ingurunea babesteko.

Itsasontzia babesteko ofiziala

Irakastordua: 26

Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako gaitasun hauek lortzeko:

- Itsasontzia babesteko planaren ezarpena mantentzea eta ikuskatzea.
- Itsasontziaren arriskuak, mehatxuak eta zaurgarritasuna ebaluatzea, babesaren ikuspegitik.
- Itsasontzia aldiaren behin ikuskatzea, hartutako neurriak aplikatzen direla eta mantentzen direla ziurtatzeko.
- Babes-tresneriaren eta -sistemen funtzionamendu, proba eta kalibratze egokiak bermatzea.
- Babesaren eta zaintzaren gaineko kontzientziakoa sustatzea.

Segurtasuneko oinarritzako prestakuntzako ziurtagiria berrestea

Irakastordua: 16

Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Formar al alumno para actualizar y mantener las siguientes competencias:

- Itsasontzia utzi behar izanez gero, itsasoan bizirik irautea.
- Suteak saihestea eta suteen aurka borrokatzea eta sua itzaltzea.

Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzako teknikaria

Irakastordua: 50

Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea honako gaitasun hauek lortzeko:

- Ikasle laneko arriskuen prebentzioko oinarritzako teknikari gisa trebatzea.
- Lan egitean itsasontziko tripulatuenteentzat arriskutsuak izan daitezkeen elementuak eta egoerak identifikatzea.
- Itsasontzian sor daitezkeen laneko arriskuko egoera batean zuzen eta eraginkortasunez jardutea.

ESPEZIALITATE-ZIURTAGIRIAK



Bidaiari-ontziak eguneratzea

Irakastordua: 12

Ikasleen kopuru maximoa: 20 ikasle

Xedea:

Ikasleak prestatzea gaitasun hauek eguneratzeko:

- Betebeharren koadroaren arabera kontrolatzea jendetza, larrialdi-egoeran dauden bidaiariak laguntzeko.
- Komunikazio eraginkorrak ezartzea eta mantentzea, eta komunikazioetan, salbamendu-gailuetan eta ontziratzeko-prozeduretan bidaiariak zuzenean zerbitzu egiten dieten langileentzako segurtasun-teknikak aplikatzea.
- Itsasontziko larrialdi-prozedurak antolatzea.
- Baliabideen erabilera optimizatzea.
- Larrialdietako esku-hartzea zuzentzea.
- Larrialdi-egoeretan bidaiariak eta gainerako langileak zuzentzea.
- Bidaiarien eta zamaren segurtasunerako eta kroskoaren integritaterako prozedurak ezartzea.
